

ARRASATE

BARANDIARAN MAITE
ERGUIN KALEA, 07-01.
ARRASATE

1

PRESS

Arrasate 1990eko Maiatzak 4, 62. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



IMANOL ARANBURU:
"Ez dago
behe mailako arterik"


Alde Zahar... berria



HOTZ - BERO

Kanpantorpea, 2 Tfnoa: 79 70 98 / 79 67 54
ARRASATE

TOSHIBA
BENETAKO KONFORTA



AIRE EGOKITUA

Adi ATBren

ikusle!

22.

k a n a l e r a
j o a n g a r a

Bai, zuk hobeto ikus dezazun egin dugu aldaketa hau.

23.kanalean emititzen egon gara orain arte eta, eginahalak egin arren, ezin izan dugu sartzen zitzaigun interferentzia ezabatu.

Horregatik, egin ez baduzu, aldaketa txikitxo eragin beharko diozu zeure aparailuari.

23.kanaletik 22.era pasatu eta kito.

Aurrerantzean askoz ere garbiago ikusiko duzu Arrasate Telebista. Zutaz arduratzen garelako.



**ARRASATE
PRESS**

ASTEKARIA



Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1,
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetak:
Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix Diaz de
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Eukeni
Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo
Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo
Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,
Iñaki Aranburu, Hankamotz,
Maite Toledo, Atalataikoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.500 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzien erantzunkizunik.

Errumaniako Timisoara eta informazio faltsua

Iazko abenduaren errumaniar iraul-
tza mundu osoak jarraitu ahal izan zuen,
ia-ia zuzenean, telebista, irratia eta pren-
tsa idatziak eskaini zizkigun albiste eta
irudiei esker. Ceauscuren diktadura
itzelaren aurka jaikitzen ari zen herria-
renganako indar morala ez zen makala
gertatu eta -hein handi batez- erruma-
niar herriak atzerritik jaso zuen indar
horren ganean eraiki zuen iraultzaren
arrakasta. Denok poztu ginen diktadura-
ren erorketaz.

Orain, beste albiste batzuek azaltzen
digutenez, errumaniarren garaipena
oinarritu zen uneko sarraskia -Timisoa-
rakoa, hain zuzen- gezur hutsa izan
genuen. Maneiatuta, trukaturata izan zen
une historiko hura, ondorioak -iraultzai-
leek nahi zituzten ondorioak- erdieste-
ko. Ez da lehen aldiz eta ez da azkena
izango. Diktadura nahiz demokrazian,
botereak beti erabili du informazioa,
berari gehien interesatzen zaion eran.
Eta Errumaniako kasuan, Ceauscucuk
ihes egin ondoren, agintera iritsi berriek
"frogak" behar zituzten euren ekintzara-
ko ahalik eta atxekimendurik handiena
irabazteko.

Uneko nahaste eta urdurikeria zirela
medio, kazetariak ez zuten azterketa
sakonik egin ahal izan agintari berriek
eskainitako informazioaz. Eta sarraskia-
ren frogak faltsuak ziren neurrian, Timi-
soaratik mundu zabalera hedaturiko in-

formazioa ere trukaturata izan zen. Agian,
helburu on baten bila ari ziren manea-
tzaileak, gorpuak ospitaletatik atera eta
erre ondoren zulo bateratuan ipintzean.
Baina, dudarik gabe, trukaketa guztiek
zapora garratza uzten dute maneiatuen
baitan.

Timisoaran antzezpen bat gertatu
zen, dekoratu konkretu batez. Diktu-
raren kontra altxatutakoek irudi lazgarri-
ren laguntza behar zuten. Hamabi mila
"hildako" haietatik... seihun omen dira
bizia galdu zutenak. Gehiegi, ezpairik
gabe, baina manciaketa galanta!
Historiak eskainitako beste zenbaitzuren
oroitzapena ere datorkit une hauetan;
hala nola, Frankoren garaiko kontzen-
trazio erraldoiak edota galiziarra bezain
gorrotagarri bilakatu zen Mao Tse
Tungen igerialdi luzea, Hori ibaitik be-
hera.

Argazki eta gainerako irudiek, berez,
errealitate gordinaren lekukotasuna
adierazten badigute ere, haiak itsatsita
eraman dezaket informazioak lekuko-
tasun horren trukaketa sor dezake. Etika,
sarri, ahaztu egiten da. Bitartekoak,
ordea, helburuaren menpe. Ikusle, ira-
kurle... ongi informatuta egon nahi
duen jendearen eskubideari ostikada
galanta ematen zaio, maizegi.

Horren aurka ere badugu zer esanik.

Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona



Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

**inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

AURRERATZEKO

SF

AIZKORA

AUTOZERBITZUA

Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

Hilbera

kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41



**OSO GAUZA
BEREZIAK**

Zerkaosteta 8

Eta hau euskaraz zergatik ez?

Arrasateko hilerriko, sarrerako bi ateetan dauden iragarki kartelak, gaztelianaz daude.

Bi urte honetan, jarri dizkiot, noiz behinka, A.E.D.ko txartelak. *Euskaraz zergaitik ez?*

Ez dut aldakuntzarik ikusi.

Baita ere, bitarte horretan, bi aldiz behintzat salatu diot hutsune hau, Udaletxeko zinegotzi arduradunari. Jabetuko zela erantzun zidan. Baiña oraindik berdin jarraitzen du.

"Aldatza"

Trafikoa Arrasaten

Zuzendari jauna

Aspaldi honetan, Arrasate autoz igarotzea ezinezko edo Joren ondorengo abentura denez, gutun hau idaztera animatu naiz.

Denok irakurri ahal izan dugu, zuen aldizkarian zein beste komunikabideetan, barianteak izan dituen atzerapen eta hondamenak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari batek, Arrasateko saihebidetaren lanak, bariante bat nola ez den egin behar ikasteko aukera eman diela esatea, are okerragoa iruditzen zait; kontutan izanda erakunde hori dela saihebidetako lanak gainbegiratzeko eta lanak egiten ari den enpresari erantzunkizunak eskatzeko ardura duena.

Edozein modutan, saihebidetaren egin behar duen enpresak zenbait erru izan arren, ez dut uste, Arrasateko trafiko gaitz guztiak saihebidetaren zirkulazioari irekitzean konponduko direnik.

Arrasateko bariantea 1980. urtean egindako proiektua da, orduan zegoen trafikoari konponbidea emateko. Hamar urte pasa direnean, proiektua zaharkitua dugu eta Arrasateko beharrak ez dituela asetuko denon ahotan dago. Guzti hori saihebidetaren bukatu baino lehen.

Edozein modutan, azpiegitura eskasak ez du trafiko arazoaren erru

guztia. Arrasatearrok ere, zerikusirik badugu. Gutariko askok Fagoren egiten dugu lan. Lanera joateko eta bide batez gehiegi ez nekatzeko, berebela hartzeko ohitura dugu.

Zigarrolan biziz gero, eta kalera etorri beharra baldin badugu autoa hartuko dugu, noren buruan sartzen da kilometro bat oinez egitea? Zoratu gara ala?

Esfortzu minimo bat egin beharke genuke, eta herri barruan ibiltzeko autoa etxean utzi beharke genuke. Ez dezagun gure alferkeriagatik herri osoa molestatu.

Xanti Elortza

Zorionak Eskubaloi taldeari


Hurbiletik jarraitu dut Arrasate Kirolak Eskubaloi taldeak aurtengoan egin duen denboraldia, eta benetan lan ederra eskaini dutela pentsatzen dut.

Azken asteburuan, osterara, berri tristetara jaso genuen guztiok, jakin ere jakin genuelako aurtengoan gure taldeak ez duela igoerako promozioa jokatu.

Taldearentzat hain tristeak suposatzen ditudan une hauetan, nere zorionik beroenak eman nahi dizkiet guztiei: zuzendari, entrenatzaile, eta jokalariei ere. Azken finean, nahiz eta epaile askoren lana benetan kaltegarria izan, zuoi esker arrasatear kirolzaleon itxaropenak bizi-bizirik iraun dutelako.

Eskerrikasko, eta eutsi goiari mutilak!

Ander Odriozola




Auzoko jaietara joatean zara?




Aitziber Zulaika
(ikaslea)

Bai. Normalean kalean ibili ondoren, azken orduan hurbiltzen gara auzoetako festetara. Egia esan, gustukoen Zigarrolakoetara joaten gara.




Oier Arana
(ikaslea)

Bai, batzuetan bai. Dena dela, nire ustez gehien bat auzoetakoak joaten dira eta zerbait egin beharko litzateke zabaltzeko.



Jose Gaztañaga
(langilea)

Bai, nire ustez oso ondo daude. Gorde beharreko ohiturak direla uste dut.




Belen Aranburuzabala
(etxeakoandrea)

Aurten ondion ez naiz joan. Normalean, Musakolako eta Uribarriko jaietara joaten naiz. Ohitura hori izan dut beti.

LENIZ

AUTO ESKOLA



LASTER: AUTOBUSA ETA KAMIOIA

ARRASATE - ESKORATZA

Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebisa, Adeslas (Muface) eta partikularrak
Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

Memesa

79 42 22


KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27

ARRASATE PRESS

77 05 65

BEHARREZKO TELEFONOAK



ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazki	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------

4 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Orquidea salvage". 7 eta 10etan.
- Novedades: "El club de los poetas muertos" 10.30etan
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

5 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Orquidea Salvage". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "El club de los poetas muertos" 5, 7.30 eta 10.30etan
- Antzerkia: Goliardos antzerki taldearen eskutik, Jean Paul Sartreren "A puerta cerrada" antzezlan ikusteko aukera. Amaia antzokian, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina.

6 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Orquidea Salvage". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "El club de los poetas muertos" 5, 7.30 eta 10.15etan
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

7 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Orquidea Salvage". 7.30 eta 9.30etan.
- Novedades: "El club de los poetas muertos" 7.30etan
- Goardiako farmazia: Morales. San Andres.

8 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Orquidea Salvage". 7 eta 9.30etan.
- Hitzaldia: "Amazonia" gaiaren inguruan. Hizlaria: Alberto Martinez, Amazonia Euslak Batzordearen lehendakaria. Monterron hitzaldi aretoan, arratsaldeko 7etan.
- Askagintzaren "Udaberi 90" Kanpainaren barruan, Eguzki eta Ekiren laguntzaz antolatuta.
- Hitzaldia: "Asterketa konparatiboa eta janariaren etiketak" gaiaren inguruan. Hizlaria: M^{te} Teresa Alonso elikatzailea. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan, arratsaldeko 4.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrenias.

9 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: Espafiol. Iturriotz.

10 OSTEGUNA

- Alai: "Sirley Valentine". 7 eta 9.30etan.
- Hitzaldia: "Euskal musika gaur" gaiaren inguruan. Monterron hitzaldi aretoan, arratsaldeko 7etan.
- Askagintzaren "Udaberi 90" kanpainaren barruan, AEDren laguntzaz antolatuta.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

IKASTAROAK

- **Unix Introducción.** Arrasateko IMIk antolatuta, maiatzaren 7tik 11ra bitartean. Izen emateak Arrasateko IMIn.
- **Ikastaroak Monterron Kultur Etxean. Sexualitatea, Jantzigintza, Puntua eta gakorratza,** Eskulan tailerrak, Hitzaldi-elkarrizketak, Osasuna eta emakumearekin lotutako gaiak. Informazioa eta izen ematea, Udaletxeko Kultura Departamentuan. Tfnoa: 79 09 00

LEHIAKETAK

- **Argazki lehiaketa.** "Gazteak gazteen ikuspuntutik". Lanak aurkezteko epea, maiatzaren 2tik uztailaren 5era. Antolatzailea, Arrasateko Gazte Zerbitzua. Oinarizko arauak jasotzeko, Gazte Zerbitzura jo. Tfnoa: 79 09 00

IRTEERAK

- **Herri Urrats.** Itxasuko Aitzetara. Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta, maiatzaren 12 eta 13an. Izen emateak, Besaide Mendizale Elkartearen egoitzan.

Markiegik estiloZ bete du

50 urte

MARKIEGIN 50 URTEZ
GEROZTIK GAITUZU
GIZONEZKOAREN MODAN
ADITU.
JANTZIAREN HIZKUNTZA
GEUREA DUGU:
BISKOSAREN IRADOKIA,
AMUKO LASAIA, ZIMURREN
MISTERIOA, ESTANPATUAREN
ZIRIKA.
BENE BENETAKO NORTASUN
ETA ESTILOZ JAZTEKO MODA.
ZORIONTSU GARA MARKIEGIN,
50 URTE ESTILOZ BETE
DUGU ETA.



“Alcalako gartzela militarretik pasatu ondoren, gose grebaren ostean eta pasatu dudan guztia pasatu ondoren, gogorrago bilakatu naiz. Konturatu naiz nolakoak diren militarrek eta nola jokutzen duten. Horregatik, insumisoagoa naiz orain.

(...) Emandako erroa militarra onartu ez nuelako kantzontzilotan utzi ninduten, eta ondorioz gose grebari ekin nion. Dena dela, orain ni etxean nago, eta eurak han gelditu dira”

(*Iñigo Irasuegi insumiso arrasatearrak, “Hemen” Egunkarian*)

“Laister euskarazko bi egunkari izango dizkiagu. Zein erosiko duk?”

Bi ateratzen badira, ez bata eta ez bestea. 13.000ko erosle potentzialen zifra idealarekin ari gaituk jokatzen, eta hori ere biren artean banatu behar bada, horrek esan nahi dik ez daukagula erremediorik. Nik uste “Egunkaria sortzen”-ek landu duela gehien asuntua eta normalena hori ateratzea izango litzatekeela.

Hamar urte falta dituk XX. mendeko euskal nobela handi hori idazteko...

Eta idatzi behar al da? Hori Orixe eta horien garaiko idea bat huen, halako nobela handi batek salbatuko zuela nik ez dakit zer. Gaur egun, eta errespeto guziarekin, bere garairako kriston meritoa zuelako, “Egunero hasten delako” edo horren kalidade mailako obra dezente egiten dela iruditzen zaidak. Eta gaur, Atxagaren Obaba horrek salbatuko gaituela esatea txorrada bat duk. Oso ona da, eta abar, baina nik uste ona izango litzatekeela urtero urtero gutxienez Obabaren mailako liburu bat edo beste ateratzen hasiko bagina”.

(*Joxerra Gartzia, DVko Zabalik-en*)

Zein dirulaguntza izango dute, hirigune historiko osoa bereonertzeko egitasmo berezian parte hartuko dutenek?

Egitasmoa bi epetan banatua dago. Azken osoko bilkuran Udalak onartu zuen egitasmoa lehen faseari baino ez dagokio.

Egitasmoaren arabera, zenbait lan Udalak egin beharko ditu, karkabak garbitu eta egokitu, etab., eta beste zenbait lan partikularrek.

Udalak azpiegitura lanetan, 243 milioi, urbanizazio lanetan 76 eta karkabak irekitzen 184 milioi pta. gastatuko dituela uste da. Esan beharra dago Udala dagoeneko hasi dela zenbait lan egiten.

Bestalde, jendeari hirigune historikoan etxeak erosteko eta konpontzeko laguntzak emango zaizkie. Laguntzak eraikuntzaren egitura konpontzeko eta norberaren etxea konpontzeko emango dira.


Laguntzak hiru motatakoak dira, interes baxuko kredituak, fondo galdurako diru laguntzak eta laguntza fiskalak.

Interes baxuko diru laguntzak, PERIan parte hartzen duten guztiei emango zaizkie. Kreditu hauek %5 edo %9ko interesa izango dute, nahiko kreditu onak kontuan izaten badugu, gaur egun banketxeek %16ko interesak izaten dituztela.

Fondo galdurako diru laguntzak, familiaren egoera ekonomikoa, etxean egingo diren lanen eta familiaren egituraren arabera emango dira.

Berregokitze lanak egiten dituztenek, obra-baimenak lortzerako orduan %10eko bonifikazioa eta lanak desgrabatzeko aukera izango dute. Lan sakonak direnean bestalde, BEZa %6 kobratuko zaie.

*Jose Luis Azkarate
Suradesako kidea*



**PUB
HAIZEA**



Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

ARTE LENIZ

koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE



Euskaldunon elkarlana posible

Komunikazio falta nabarmena euskaldunon artean

Joan den astean, *Euskaldunon Elkarlana posible ote?* gaiaren inguruan hitzaldia burutu zen Monterronen. Hizlariak, Mikel Ugalde, eta Paulo Agirrebalzategi. Moderatzailea Julen Arejolaleiba. Hizlari biek lankidetzaren beharrezkoa dela aipatu zuten, horretarako zailtasunak ikusten badituzte ere. Paulo Agirrebalzategik, bi lankidetzaren maila aipatu zituen, herri mugimenduen artekoa, eta herri mugimendu eta erakunde publikoen artekoa. Mikel Ugaldek, berriz, Hizkuntz Politikarako Idazkaritza izatea euskararen ahuleziaren adierazgarri dela aipatu zuen.



P. Agirrebalzategi, J. Arejolaleiba, M. Ugalde

Euskara hiztunek salbatuko dutela eman zuten aditzera eta elkarlaren eredu ikastolak jarri zituen.

“Udaberri 90”

Askagintzak “Udaberri 90” kanpainari ekin berri dio. Arrasaten, kanpaina honen barruan, Eguzkik, Ekik eta AEDk antolatutako bi hitzaldi burutuko dira, datorren asteko astearte eta ostegunean.

Askagintzaren ustetan, drogo-menpekotasun arazoa ez da kontsumitzaileen penalizazio edota jarrera paternalisten bidez konponduko. Talde honen ustetan drogomenpekotasunaren arrazoi nagusia, marginazioa da –gazteek, naturak, euskarak, emakumeek, etab. jasatzen duten bazterkeria–. Hau dela eta, arazo desberdin hauei aurre egiten saiatzen diren taldeekin harremanetan jarri eta kanpaina honi ekin diote. Arrasaten, aipatu ditugun taldeen laguntza izan dute.



Abesbatzak Amaia antzokian

Amaia antzokia leporaino bete zen larunbat arratsaldean Deba Bailerako Eskola arteko Abesbatzen III. Topaketa zela eta. Umezaintza, S.F. Xabier, S. Viator, Almen eta Bergarako Mariaren Lagundia ikastoletako neska-mutikoez zein baino zeinek polikiago abestutako kanta ederrak eskaini zizkiguten. Korai guztietako zuzendariak saritu ondoren, Arrasateko *Goikobaluk* eman zion amaiera jaialdiari, lau abesti ederrez. Bat aipatzekotan, “*Italiar nahaspila*”. Zoragarna.



NUTRISAN

NUTRIZIO, OSASUN ETA KIROL MENDIKUNTZAKO ZENTRU MEDIKOA.

Zatoz gugana, amesten duzun gorpuzkera berreskuratu eta behin betirako mantentzeko.

- Dieta pertsonalizatuak eta azterketa metabolikoak
- Zelulitiaren tratamendu medikua.
- “Kirol-gimnasiako” mahaia.
- Elektroeskultura.

Arduradunak:

Telleria Dka., Serrano Dka. eta El Busto Dka.
(Dietetika eta Nutrizioa Bordeleko Unibertsitate)

Kale Aldea 11, etxabea, Arrasate Tfnoa: 79 65 78




ETXE-AUNDI

Dastapen-menua
malatzaren 13rako

- Melei-zuku hotza otarrainskekin
 - Ahate-konfitearen entsalada epela perretxikoeekin
 - Txahal-solmoa espinaka gainean Rossini saltsaz
 - Errekako amorraina ziape-sabaionez eta piper muturtxodunen saltsa
 - Gaztanbera eta irasagarrezko tarta, almendrakonpotaz.
- 2.900 pzia BEZ bame

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI



Amatek autoentzako piezak egingo ditu

Fagor automozio sektorean

Amat, Ederlan eta Luzuriagak, autoetarako piezak egingo

Fagorren inguruan Europa mailako automozio sektore talderik indartsuenetakoa sortuko da. Horrela erabaki dute honez gero Amat, Ederlan eta Fagorreko bazkideek apirilaren 9an, 21ean eta 27an egin zituzten Batzar Orokorretan.

Fagorren automozio sektore talde horretan Ederlan, Amat eta Luzuriaga sartuko lirateke, horretarako lehenago Fagor taldeak Luzuriagaren erostea gauzatu behar duelarik. Azken batzar orokorrean Fagorrek Bitoriano Luzuriaga enpresa erostea erabaki eta gero, ez dirudi arazorik egongo denik Fagorrek Luzuriagaren hiru plantak bereganatzeko.

Ederlan kooperatiba 1936an sortu zen eta gaur egun ia 900 langile ditu. Bere produkzioaren gehiena automoziora zuzentzen da. Haren

karteran auto markarik handienak daude, besteak beste, Ford, General Motors, Seat, Talbot, Renault, Peugeot, Citroen, etab.

Amat, oster, 1962.an sortu zen eta dituen 320 langileek *fitting*-a egiten dute, hau da, tuberiak eta, lotzeko beharrezko piezak. Automozio sektore talde honetan sartu arren, Amatek orain arte bezala *fitting*-a egiten segituko du. Automozioaren mundua, hala ere, ez zaio guztiz berria, iaz adibidez sektore horretako 6.000 tona material egin zuen eta.

Fagor taldeak, 1992. urterako, 40.000 milioiko salmentak aurriztatu ditu.

Adituek diotenez, Fagorren automozio sektore talde berri hau Europako bost talde indartsuenen artean egongo litzateke.

Guriak, Sobiet Batasunari teknologia saldu

Joan den astean, Arrasateko Lankide Aurrezkiaren egoitza nagusian, Guria Kooperatibak, Sobiet Batasuneko Licensintorg Korporazioarekin hondeatzeko makina hidraulikoak edo eskabadorak egiteko, behar den teknologia saltzeko akordioa sinatu zuen.

Akordioa, Lankide Export-en bitartekari lanari esker lortu zen.

Guria kooperatibak eta sobietarrek sinatutako akordioa zazpi urtez luzatuko da eta bi epetan banatuta egongo da. Lehen lau urteetan lizentziak, eta egiteko ezagupenak salduko dizkiete, pertsonal sobietarra prestatu, fabrikazio elementuak egokitu eta oraingo planta guztiz berregokituko diete, laugarren urteik aurrera sobietarrak gai izan daitezten, urtero modelo horretako 1.500 hondeatzeko makina egiteko.

Lehen fasean egin beharreko lanagatik, Guriak 400 milioi pezeta jasoko ditu. Bigarren faserako Guriak konpromezua hartzen du Donetzko plantak beharrezkoa duen ekipamenduaz hornitzeko, 2.000 milioi pezetaren truke.



K i D E

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA ✦

zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Atletismo pista tomate eta letxugen ordez

Mojategiko atletismo pista

Eraikitzeko lehen urratsak ematen hasi

Arrasateko Udalak, Mojategin, Musakola auzoan, atletismo pista eraikitzeko eman beharreko lehen urratseiekin die. Arrasateko Arau subsidiarioen arabera, Mojategiko lur-orubean kirol ekipamendua eraikiko da. Gaur egun, lur sail horretan, arrasatear ugarik baratza du, nahiz eta lur sail nagusia Mojategi baserrikoen esku egon. Arrasateko Udala lur jabeekin harremanetan jarri da, lurak desjabetze bidez hartzeko, ados jartzea espero badute ere.

Mojategiko atletismo pista, aurreko Udal-Gorporazioaren asmoa da. 1986an, Arrasateko Udalaren enkarguz, aurreproiektua burutu zen, baina garai hartan Udalak ez zuen onartu.

Aurreproiektuaren arabera, sei kaletako atletismo pista ofiziala

eraikiko litzateke Mojategin. Pistak, lasterketa laburrak jokatzeko zortzi kale izango lituzke eta honez gain, disko eta mailu, altuera eta luzera jauzikofrogak jokatzeko gune ego-kiak.

Aurreproiektu hark, ez du aurrikusten aldagela edo antzekorik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, eskualde mailako atletismo pistak egiteko egitasmo berria aterako du gutxi barru. Arrasateko Udalak egitasmo horretan parte hartuz eraikiko luke pista berria.

Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak pista eraikitzeko orduan zeresanik izango luke. Arrasateko Udalak atletismo pistaren aurreproiektua aurkeztu beharko lioke Diputazioari eta honek onartzuz gero, lanak egiteko dirulaguntza jasoko luke

Usteak uste...

Arrasateko Udalaren azken Osoko Bilkuran hogeitalau ziren aztertzeke puntuak eta gehienak hirigintzari lotuak. Tartean, noski, Iturripeko Kiroldegia eta Zaldibarko pilotalekuarenak, milioi askokoak eurak.

Biharamunuean, Loiolako Herri Irratiak antolatuta, Arrasateko hirigintza izan zuten eztabaidagai alkateak, oposizioko alderdien ordezkariak eta beste zenbait herritarrek. Ia ordubete 1' erdi aritu ziren berbetan, eta programazioaren beharrak eraginda moztu behar izan ostean, argi gelditu zen bai, zenbait puntu aipatu zutela, aipatu, zeren ez sakondu, eta beste zenbait -alde zaharraren eraberritzearena, kasu, aipatu ere ez zela egin-. Ez pentsa gero, parte hartzaileak berriketa hutsean aritu zirenik, baina Arrasateri dagokionez, hain da zabala gaia!

Mondragoe geroan bere lekua- ren bila ari den herria dugu. Argi dago hemen dinamizarik badagoela; ez dakigu, ordea, zenbat iraungo duen, zeren etorkizun horren desafiari aurre egiteko dauzkaguna baino azpiegitura, garraio eta bizi kondizio hobeak beharko ditugu, hemengo enpresa, eskola eta inguruan hazten eta ikasten ari den jende prestua beste inora joan aurretik.

Irratsaioan askotan adabakinez hitz egin zen eta ez soluzio integral edo orokorrez. Garestiegiak omen azken hauek. Noizbait neurtu beharko ditugu epe luzean zer diren karuagoak, osoko konponbideak ala kutsadura

Joxe Aranzabal

M. Angeles Garbala eta Jose Alberdi doktoreak

KONTSULTA OFTALMOLOGIKOA

Ordua aldeztu aurretik eskatu astelehenetik ostiralera arratsaldeztu.

Partikularrak eta Lagun Aro.

J.C. Guerra kalea, 1-3. eskuina. Tfnoa: 77 08 96

ARRASATE

**URREZKO BITXIAK
ERLOJUAK**

Erdiko Kale 23, Tfnoa: 79 20 47
ARRASATE

NAROKI



Arrasate Musikal kontserbategi?

A. Musikal gaur argituko ote?

Musika Irakaskuntzarako Kontseilu Aholkularia Arrasaten

Asteazken goizez, bilera egin zuten Eusko Jaurlaritzako Musika Irakaskuntzarako Kontseilu Aholku emaileko hiru partaidek, Fernando Etxepare, Esteban Elizondo eta Jose Antonio Sarria, Irun, Donostia eta Leioako musika kontserbategietako zuzendariak eta Arrasateko Udalarren partetik X. Zubizarreta alkatea, A. Orobengoa eta X. Bengoa zinegotziek, Arrasateko musika irakaskuntza eztabaidatzeko.

Luze joan zen bileran, Musika Irakaskuntzarako Kontseilu Aholku

emaileak 26.000 bizilagun inguru dituen herri baten musika kontserbategia nolakoa izan beharko litzatekeen azaldu zuen. Bileran arazoaren arlo teknikoak ere aztertu zituzten.

Ostiralean ere bilera izan da. Bileran, Aitor Orobengoa, Arrasate Musikali buruzko txostenaren egileak proposamen zehatza aurkeztea eta alderdi politiko ezberdinek, euren jarrerak argitzea espero zen. Musika Irakaskuntzarako Kontseilu Aholku emaileak ere, bileran parte hartzeko asmoa azaldu zuen.

San Andres Eskolan, Euskararen astea

San Andres Herri Eskolak, maiatzaren 7tik 11ra bitartean "Euskararen astea" ospatuko du. Astean zehar haurrek filmeak, antzerkiak, herri kirolak, liburu eta disken azoka eta beste hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute. Perurena ere, San Andres eskolara hurbilduko da eta haurrek harekin hitzegiteko aukera izango dute.

Egonaldiak familia euskaldunetan

Aurtengo udaran, "Egonaldiak familia euskaldunetan" plangintzan parte hartu nahi duten euskaldun-iek, izen emateko epea zabalik dute jadanik. Interesatuak, Arrasateko Euskara Zerbitzura jo beharko dute. Plangintza honen bidez, euskara ikasleek, edozein euskalki jorratzeko aukera izango dute.

JAIOTZAK

Borguero Ferreira, *Mikel*. Apirilaren 2an
Santiago Arroyo, *Jorge*. 15ean.
Rodriguez Chaves, *Aitor*. 23an.
Cuesta Zubia, *Elisabete*. 24an.
Casas Bengoa, *Ander*. 25ean.
Lakua Zeziaga, *Irati*. 26an.
Gorostegi Anduaga, *Ilargi*. 26an.
Landa Aperribay, *Itxasne*. 27an.
Linazasoro Elorza, *Maddalen*. 28an.
Gorroñogoitia Unibarren *Jokin*.

EZKONTZAK

Juan Jose Lizarralde Uribarren &
Josefina Gil Mena. Apirilaren 21ean.

Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia, etab.

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

SASKI-NASKI

lehiaketa

Asteroko sariak



KOLTAZ

Aranzabal Akobe
elektrogailuak

ROWENTA
ESKU-ASPIRAGAILUA




MELIA BIDAIK

Etxe Aundi jatetxea



AFARI BAT
BI LAGUNENTZAT



**OKENDO
KIROLAK**

ZAPATILAK



Ikatz

argazki etxea



ARGAZKI MAKINA
AUTOMATIKOA

Hileko sari handia



Ikatz
argazki etxea

80.000 pta. ko
reflex argazki
makina

Galdera:

Zein urtegitatik jasotzen dugu ura arrasatearrok?

ASTE HONETAKO
SARITUAK

JOSE LUIS ABUIN
Esku-aspiragailua

IÑAKI ANDUEZA
Bi lagunentzako afaria

JUANMA AGIRRE
Kirol zapatilak

JURDANA AYALA
Argazki makina

Erantzuna:

Izen-deiturak:

Helbidea: Adina: Tlfnoa:



Tecsá-k egingo Ferialeko frontoia

Azken plenoan gai guztiak onartu

Joan den astean burutu zuen Arrasateko Udalak, hileko osoko bilkura arrunta. Bilkuran eztabaidatu ziren gaien artean garrantzitsuenak Ferialeko pilotalekuaren eta Iturripeko kiroldegiko lanen adjudikazioak izan ziren. Ferialeko pilotalekuko lanak Tecsá enpresari adjudikatu zitzaizkion. Lan hauek, 248.504.984. pta.ko kostua izango dute. Iturripeko kiroldegia, oster, Brues enpresak eraikiko du eta 306.759.931 pta.ko kostua izango du.

Azken osoko bilkuran bestalde, Kontxi Etxebarria EAko hautagaia azken udal hauteskundeetan zinegotzi bihurtu zen Mikel Garai ordeztuz.

Osoko Bilkuraren 22. puntuan, berriz, hutsik dagoen idazkari lanpostua aldi baterako betetzeko bitarteko funtzionaria hartzeko egin beharreko oposizio-lehiaketaren deialdia onartu zen.


Azkenik Jose Luis Lana eta Aitor Orobengoa CAMEan udalaren ordezkari izaten segitzea erabaki zen.

Arrasate, Loiola Herri Irratian

Labur gelditu zen Loiolako Herri Irratiak antolatuta eta Alberto Gorritiberearen zuzendaritzapean, Monterronen joan den lanbategian Arrasateko hirigintza estabaidan izenarekin egin zen irratsaioa.

Parte hartzaileak Aitor Orobengoa (EE), Pilar Peña (EAJ), Jose M. Usatorre (HB), Juan J. Zabarte (EA) eta Xabier Zubizarreta alkatea.

Eskola Politeknikoko Injenerutzako 3.mailako bost ikaslek ere esku hartu zuten, galderak eginez. Hiru herritarren galderak ere jaso ziren eta zinegotziari luzatu. Irratsaio interesgarria eta bizia izan zen, baina gauzak egin ziren moduan, denbora falta izan zen, zenbait arazo garrantzitsuk aipamen hutsa jaso zuen eta.



Kanping eta terrazarako
beharrezko guztia preziorik onenetan

Eco Gasteiz -en

Cercas bajas 34, GASTEIZ

LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Eskolaz kanpoko ekintzak

J. A. Azurmendik, zentru integratuaren beharra ikusi

J. A. Azurmendik, aurkeztu berri du Udalak eskatutako Arrasate eta inguruetako eskolaz kanpoko ekintzen azterketa. Azurmendik, argitu digunez, eskolaz kanpoko ekintzak, zentzu zabalean ulertu behar dira, ume zein helduentzako hezkuntza iraunkor gisa, alegia.

Arrasaten, eskolek nahiz kultur, kirol, aisialdi etab.eko, talde ezberdinek zein Udalak iharduera ugari eskaintzen digute Arrasatearroi, baina inolako koordinaziorik gabe.

Udal ugari bere gain hartzen

omen du Eskolaz Kanpoko Ekintzen antolaketa. Udalek talde pedagogikoak sortzen dituzte. Arrasaten ere horrelako taldea sortzea proposatzen du.

Eskolaz kanpoko ekintzak bi multzotan banatuko lituzke Azurmendik, eskolek eskainitakoak eta herritarroi eskainitakoak.

Herriko eskolaz kanpoko ekintza koordinatzeko eta burutzen diren ekintzak plangintza oso batean egin daitezten Hiritar Zentroa sortzea proposatzen du.

Elbarrituek bilera Iturbiden

Atzoko, Arrasateko elbarrituek bilera burutu zuten Iturbiden, taldeak dituen behar eta arazozen berri emateko.


Arrasateko Udalak, 1989an ekin zion herriko elbarrituen zentsua egiteari eta dagoeneko, jakin ere badaki 300 bat pertsonak osatzen dutela talde hori.

Datuen arabera, 125en bat elbarritu fisiko, 100en bat psikiko eta 75 elbarritu sentsorial inguru daude; hauen artean, itsuak, gormutuak, etab. sartzen dira.

Lehenik eta behin, Udalak pertsona horietako bakoitzaren egoera aztertu du. Aipatzekoa da, 40 kasutan elbarritu horiek ez zutela 26.000 pta.ko pentsioa bera ere jasotzen. Gaur egun, dirulaguntza minimo horiek eskuratzeko tramitazioak behintzat, eginak dira.

Zentsua egiterakoan, taldearen beharrak eta bizi dituzten murrizketak ezagutu ahal izan dira: errealizazio-ariketak egiteko gune apropos falta, tailer berezien gabezia, aisialdirako eskaintza edo lokale falta, etab.

Musakolako Kiroldegian, b. estalde, hainbat obra egin dute elbarrituei bertara joatea errazteko.




AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEIko kidea
Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea.

**“Hizkuntza bat gehiago,
muga bat gutxiago”**


Loramendi 7, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE



Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11 Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Harri eta zur gelditu ginen, DVko Zabalik-en Joxerra Garziaren argazki hau aurkitu genuenean. Maisua, irrati gizona, idazlea, telebista aurkezlea...eta itxura denez squash jokalaria trebea. Behintzat, astero-astero hurbiltzen da izerditan egitera!



Goiz lanpetua izan zuen Xabier Zubizarreta alkateak larunbatean. Loiolako Herri Irratiko irratsaioan parte hartu ostean, Santi Gonzalez eta Alazne Ortiz gazte arrasatearrak ezkondu zituen zibilez, Monterronen. Biharamonean ezkonberriak Saloura joan ziren. Zorionak!



Duela egun batzuk, Eusko Jaurlaritzako administrazioan lanean diharduten hainbat lagun izan genituen bixitari Arrasate Press-en. Oñatiko barnetegian astebetez euskera lantzen zeudela, eta aukera aprobetxatu nahi izan zuten guregana hurbiltzeko. Antza denez, arrakasta handia izan zuen gure aldizkariak euren artean!



Aurrera darrai arrakasta itzelaz *Saski Naski lehiaketak*. Argazkian azken irabazleatariko bi ikusten ditugu: Ikatz-eko argazki-kamara irabazi duen Raul Garzia, eta Etxe Aundiko afaria eskuratu duen Monika Galindo. Horiez gain, Esther Merinok ere Okendo Kirolak-eko zapatilak lortu ditu, eta Vanesa Romerok Aranzabalenero aspiragailua. Zorionak guztiei.

LASAGABASTER

Jantzidenda

*Bertan izango duzu beti modako
gauzarik onenen aukera zabalena*

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97

Pozik egon daiteke Donostiako Errealak, Arrasaten dituen zaletuekin; galdetu bestela Fagor Elektronikako

38 emakume hauei. Valentziaren aurkako partidua dohan ikusteko aukera zutela, eta hor abiatu ziren goizeko 9.30etan, alokatutako bi pisuko autobusean.

Espedizioa gizonetako bakarra, txoferra, beheko pisuan bakarrik, eta emakume guztiak goian.

Goizean Txuri-Urdinean patinatu (bertan Arkonadarekin egin zuten topo), eta ordubata aldean Hondarribira abiatu ziren poteoan.

Aquariumean bapoz bazkaldu, eta zazpiretarako Atotxan genituen, inork baino animo eta berotasun handiago ematen. Errealak 2 eta 0 irabazten utzi zuten atsedenaldian, Astigarragako sagardotegira irten zirenean.

Gero heldu ziren albiste txarrak: Valentziak lortutako berdinketa. Positibo galduren tristura ahazteko edo, gauean Zarautzera joan ziren, ordu bit'erdia inguruan etxera itzuli ziren arte.

Errealeko zuzendaritzak baleki, seguruenik igandero gonbidatuko lituzke Atotxara.

Merezi behintzat, ▶
hala merezi dute! ▶



izen propioak

■ **Jose Luis Azkarate**, 34, bergarra, Suradesa utzi eta Gasteizera joango da lanera. Jose Luis, arkitektoa da eta azken bost urteetan Deba Garaiko Udal Elkartearen lanean aritu da erreabilitazio planetan.

■ **Jose Antonio Oyarzabal**, 76, Alegikoa, "Don Josemaria visto por sus condiscipulos" liburua kaleratu berri du. Jose Antonio apaiza da eta bere ikasketak Gasteiz eta Erroman burutu zituen. Donostian, Gijonen eta Madrilen zenbait etxe diozesanoren zuzendari izana, Oviadoko katedralako kanonigoa izan zen bost urtez. Arraten zenbait urtez egon ondoren, gaur egun Donostian dihardu lanean.

■ **Aitor Orobengoa**, 29, zinegotzi arrasatearra, Arrasateko Udalaren ordezkari izandatu dute Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalean. Aitorrek injinerutza Tekniko ikasketak egin zituen Eskola Politeknikoan eta Nantes eta Parisen Goi Mailako Injinerutza ikasketak. Sei urte daramatza Fagor Sistemasean lanean.



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 84



Zurjin Kantoj, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE




Otalora 2, ARRASATE

Alde Zahar... berria

Udalak, Alde Zaharra berregokitzeko egitasmoa onartu

Pasa den ostiralean aurkeztu zitzaion Udaleko plenoari, Suradesak 1985. urtetik landu duen Alde Zaharra berregokitzeko egitasmoaren lehen fasea. Zer lortu nahi duen planak? Biztanleen bizi-kalitatea hobetzeaz gain, Alde Zaharrari kutsu berezi hori ematen dioten ondare eta eraikuntza tradizionalei eustea. Horrela, 1998rako burutu nahiko lukete egitasmoa.



Alde zaharreko bi ikuspegi ezagun: Erdiko kale eta Iburriotz kantoiko atea

Kondairaren esanetan

Batek daki noiz sortu zen Arrasate. Herri-usteak dioenez, Nafarroako errege izandako Santxo Abarkak erai-ki zuen orduko hiru kaleak inguratze-ko harresia, eta bai Santa Barbarako gaztelua ere -gerora, Enrique IV.aren aginduz 1457an suntsitu zutena.

1260ko maiatzaren 15ean, Castillako errege zen Alfontso X Jakintsuak izena aldatu, Mondragon jarri, eta hiribildutzat jo zuen gaur egun Alde Zaharra dena.

1448ko ekaina. Euskal Herri osoa astindu zuen Ahaide Nagusien arteko borrokaren testuinguruan, Oinaztarrak Arrasaten sartu ziren. Ekainaren 23an, San Juan gaua, Ganboatarrak harresia inguratu eta zuziriak jaurti zituzten barrura. Oinaztarrak xistu bizian atera behar izan ziren, zuzen heriotzera.

Gatazkaren ondorioz, egurrezko etxez egindako Arrasate kiskalia eta deuseztua gelditu zen, bi etxe ezik.



Ondarea galduz

542 urte igaro dira ordutik, eta zeharo aldatu zaigu Arrasate.

Herri gehienek Alde Zaharretan izan ohi dituzte eraikuntza esanguratsuenak, nortasun eta oroite historikoa iraun erazten duten eraikuntzak. Gure kasuan, ordea, itxura denez ez dugu jakin izan ondare hori nola gorde; gune historiko asko eta asko bertan behera

honetan lan egiteko.

Suradesa elkartearen eginkizun funtsezkoenak honako hauek lirateke: gure herrietako Alde Zaharren hondamena eragozte, berregokitze egitasmo bereziak gestionatuz, Eusko Jaurlaritzako berregokitze-osatuaren laguntzak bideratu eta arautzeko.

Gauzak horrela, Arrasateren kasuan 1985. urtean bertan jarri zuten martxan, azken plenoan Udalarai aurkeztu berri dioten azterketa.

Juan Adrian Buenoren ardurapean, hiru arkitekto, soziologo bat, ekonomista bat, hiru apailari eta abokatu bi aritu dira lehen fase hau lantzen.

Egitasmoaren helburuak

Berregokitze bereziaren helburuen artean, aipatu behar hirigune zaharreko biztanleen bizi-kalitatea jaso, eta hiri-ingurunea hobetu nahi direla.

Horrez gain, gure hiriguneari kutsu berezi hori ematen dioten ondare eta eraikuntza tradizionalei eustea bilatzen da, baita aurretik dauden eraikuntza eta azpiegitura aprobetxagarriak berrerabiltzea, Alde Zaharra erdigune nagusi moduan finkatzea, eta era berean, bere irudi sinbolikoa indartzea herriaren adierazgarri eta kulturgintzarako, bizitzako, eta merkataritzarako esparru modura.

Berregokipenaren aurre-planifikazioa egin da, gainera, Eusko Jaurlaritzak kontuan har dezan zenbateko diru

Suradesaren bidez, dirulaguntza interesgarriak eskura daitezke etxeak berregokitzeko

bota, eta etxebizitza modernoek ordezkatu ditugu; ekonomiaren legea.

Gauzak horrela, orain urte batzuk (1985 inguruan), Deba Garaiko zortzi Udalek *Suradesa* elkarte anonimo independentea sortu zuten, eskualde


kopurua eman beharko lukeen laguntzatan, etxebizitza eta komertzio jabeek obrak has ditzaten; azken finean, argi utzi behar bait da pertsona bakoitza dela bere propietatea eraldatzeko erabakia hartu behar duena.

Etxebizitzatan, hainbat konponketa egin nahi dira: teilatuak, fatxadak, barne-egiturak berriztatu, baita iturgintza eta elektrizitate instalazioak ere, apainketa eta pintatze lanak, berogailu sistemak, suteen aurkako segurtasun neurriak jarri, etab.

Udalak, bere aldetik, toki edo gune publikoen hobekuntza-gastuak hartuko lituzke bere gain: kaleak, lorategiak, karkabak...

Txostena dokumentu juridiko bihurtu denez, gainera, biztanleen eskubide eta betebeharrak arautuko ditu: zer eremutan eraiki, altuerak, bolumen eta erabilerak, materialeak, etab.

Dena den, laster irekiko da lehen fase honen erakustaldi publikoa, interesatuek informazioa jaso, eta beharrezko alegazioak egin ditzaten.



1971ean halaxe ikusi zuen Julio Caro Barojak Arrasateko alde zaharra

Gazteluondo etxea eredutzat

Suradesa Arrasateko Alde Zaharra berregokitze burutzen ari den planaren barruan, egon ere badago esperientzia bitxiren bat hor-nonbait.

Zorione Garitano eta Dani Migelez, beste gazte arrasatear askotxo bezalaxe etxe bila ari ziren. Horrela, *Suradesara* zuzendu zituzten euren urratsak, aholkua jasotzeko asmotan.

Dirulaguntzen oinarrien azalpena egin eta gero, *Suradesako* ordezkariak arrasto polita jarraitzeko aukera eman zieten: Erdiko Kafeko 37. zenbakian kokatua dagoen Gazteluondo Etxearen berregokitzea.

Etxabeaz gain, hiru solairuz osatua dagoen edifizioa dugu Gazteluondo Etxea. Garai hartan, eraikuntzaren munduan diharduen

Elorza enpresa, eta *Txantxote* ahizpak ziren jabeak.

Egitasmoa aurrera eramateko, Zorione eta Dani jende gehiagorekin harremanetan jarri, eta bi lagun konbentzitu zituzten: Iñaki Telleria eta René Waterhouse hain zuzen.

1989ko irailean, lau gazteek edifizio osoa erosi zuten; horrez gain, Mari Arana eta Jose Carlos Anasagasti arkitekto bilbotarrak kontratatu zituzten, bakoitzaren gustoei egokitutako proiektuak landu zituzten eta inoiz ez etxebizitza estandarrak.

Etxabea eta lehenengo solairua Renérentzat, bigarrena Zorione eta Danirentzat, eta hirugarrena Iñakirentzat; hori izan genuen tratua. Guztiek ere 90 m. karratuko planta izango dute, eta gainera 25 m. koadroko ganbara eskuratuko du

bakoitzak.

Gauzak horrela, dagoeneko hilabete darama "Canas Eraikuntzak" enpresak berregokitze-lanetan. Edifizioaren izakera eta itxura errespetatuz, sei hilabeteko epean prest izango dute dena: teilatua, fatxadaren konponketa, barne-egitura, iturgintza eta elektrizitate instalazioak konpontzea, berogailu sistemak jartzea, etab. luzea.

Ez pentsa, gainera, egitasmoaren kostua ikaragarria denik. Prozesu guztiaren ondoren, etxebizitza bakoitza hamar bat milioitan loruko dute, dirutza horren %60a inguru Eusko Jaurkitzaren laguntzen bidez eskuratuko dutelarik; milioi bat gutxi gora behera fondo galduan, eta beste bost milioi inguru hamahiru urtetan itzultzeko, %5-9 arteko interes baxuaz gainera.

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE




Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA

LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR

LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

“Arteaz ezjakintasun handia dago”

Imanol Aranburu, keramikaz hitze giten

Arrasatear gutxi aukeratu du ogibidez artea. Imanol Aranburu dugu horietakoa. Salamancako Arte eta Lanbide eskolan ikasten aritu ondoren, Arrasatera itzuli eta keramikaz sortzen dituen arte lanez bizitzea du helburu. Edozein modutan zaila omen da horretaz bizitzea. Azken lau urteotan Leintz Zeramika eskolan lanean dihardu.

— *Arrasate Press: Zer dela eta hasi zinen keramika lantzen?*

— *Imanol:* Eskola Politeknikoan aritu nintzen ikasten makinatxo bat urtez. Baina ez nengilena gustora, han ikasten nuenak ez ninduen bat ere asetzen. Eskolan segitu nahi ez nuenez, etorkizunerako izan nitzakeen irtenbideak aztertzen hasi nintzen.

Salamancan, Arte eta Lanbide Eskola zegoela ikusi nuen eta lagun batzuk hara joan behar zuten, ni ere animatu nintzen, ezer garbi izan barik, probatzera edo.

Egia esan, eskulanak eta, beti gustatu izan zaizkit, baina keramika inoiz egin gabe nuen.

— *Arte eta Lanbide eskolan ikasten hasi eta hasiera hasieratik erabaki al zenuen keramika ikastea?*

— Ez. Lehen urtean, eskolako ikasgai guztiak ikusi nituen, keramika, grabatugintza, egurra, eskaiola, etab. Tailer guztiak ezagutu ondoren keramika ikastea erabaki nuen. Harez gero, keramika lantzen dihardut.

— *Beraz, edozein ari daiteke honetan?*

— Nire ustez bai. Ez da dohain berezirik behar. Sentsibilitate apur bat izan behar da, baina gehien bat ikasi egiten da. Nik ezer ere ez nekien, buztina bizi osoan ikutu barik neukan eta ikasi egin nuen. Jakina, atsegin

izanez gero, ahaleginu egiten zara. Irakurri, orduak sartu, zeure kabuz zeure burua janzten saiatzen zara.

Eskolak oinarria eskaintzen dizu, ondoren nork berea landu beharko du eta hasteko, eskolan ikasitakoa nahikoa izan daiteke.

— *Keramika arte kontsidera daiteke? Beharbada keramika, erabilkortasunarekin parekatzeko ohitura dugu...*


— Bai, arte kontsidera daiteke, baina zenbait gauza desberdin beharra dago. Keramika lantzen dugunon artean ontzigileak, teknikari edo keramistak eta artistak aurki genitzake. Ontzigileak, lanbidea dakitenak direla esango dugu. Familiak izan duen ogibidea izan ohi da.

“Sormen lanetan ez dago behe mailakorik, izatez, denak maila berekoak dira”

Semeek aitarengandik ikasi ohi dute lanbidea. Normalean, erabilkortasuna duten tresnak egiten dituzte ontzigileak, katilu, pitxarrak, etab.

Bigarren multzoan keramistak aurkituko ditugu. Keramistek teknika ugari dake, teknikoak direla esango dugu.

Azkenik, artistarekin egingo dugu topo. Artista beste maila batean dagoela esan daiteke. Artistak tekni-



Imanol Aranburu

kak menderatzen ditu eta teknika horiek sormen lana egiteko erabiliko ditu. Artistentzat lehengai buztina izango da. Zerbait adieraztearren edo atsegin duten zerbait egitearren sormen lana burutuko dute.

Kontu handia izan behar da hemen. Nire eritziz, artistek beren lanak egiten dituztenean, ez dute gauza berezirik adierazi nahi, batzutan behar bada bai, baina beste askotan ez.

Beste artista batzuk lehengaitzat, ohiala, egurra

dintasuna, baina nire ustez, berez, ez dago inolako desberdintasunik. Desberdintasuna gehien bat arte lanen salneurrian nabari da. Oleo batek ehun mila pezeta balio duela entzuteak ez du inor harritzen; aldez, keramikalan bat ehun mila pezetatan saldu nahi izatea erokeria da.

Merkatuak, beraz, goi eta behe mailako arteen arteko bereizketa egiten du.

Edozein modutan ere, nahiz eta erabilitako lehengai desberdina izan, denak dira maila berekoak.

— *Keramikaz bizi al daiteke?*

— Nahiko zaila da. Arte lanak saltzeaz gain, beste diru iturriren bat izan beharra dago. Nik keramika ikastaroak ematen ditut.


— *Jendeak arte-lanak baloratzen al ditu?*

— Ez, inola ere ez. Ezjakintasun handia dago. Jendeak ikasi egin beharko luke arteaz. Beharbada erru apurren bat artistek eurek dute, ez bait dute atsegin ikastaro edota azalpenak ematea. Horrez gain, erakundeek ezer gutxi egiten dute artea zabaltzeko. Ez dago erakusketako egiteko eta ikusteko leku aproposik...



Besaide Mendizale Elkarte

Azken boladan ere, makinatxo bat mendi-irteera ari dira antolatzen Besaide Mendizale Elkartekoak. Azken zubia aprobetxatuz, hogeitamar lagunetik gora hurbildu dira Vall D'Aranera. Ezin ahaztu, bestalde, asteburu honetan bertan hasiko dela Telera mendikatean eta Vigneramalen egingo duten alpinismo ikastaroa. Adi beraz, aurrerantzean, Besaidekoen berriei; ez dira geldi egotekoak eta!



Arrasate Kirolak, edo aukera galdua

Denboraldi ikaragarri ona egin ondoren, egiaren orduan huts egin zuen Arrasate KAirolak eskubaloi taldeak. Derrigorrezkoa zitzaien gure jokalariei Bilboko Loiolaren kontrako partidua irabaztea, baina ez zuten asmatu. Bizkaitarrak 23-24 nagusitu ziren, eta horrenbestez, igoeraren ametsak porrot egin du mondragoEtarrantzat. Eutsi goiari, hurrengo denboraldia geurea bait da!

Deba Arroa txapelketan

Lan ederra burutzen ari dira Arrasateko pilotariak, batez ere alebin eta gazte mailetan. Azken ihardunaldia Bergaran jokatu zuten, eta lau partidutik bi irabazi. Rubia eta Etxebarria 18-9 nagusitu ziren alebinetan; Osinaga eta Zugasti haurrek 18-8 galdu; gazte mailako Korta eta Markosek 22-12 irabazi; eta azkenik, nagusi mailako Mugika eta Kortak 11 eta 22 galdu. Honenbestez, badirudi bi bikote izango ditugula mondragoe-tarrok finalerdietan, Rubia-Etxebarria, eta Korta-Markos. Horiek behintzat seguru, eta nork daki, agian azken orduan baita besteren bat ere...

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

podiuma

**Javi Zurbano,
emakumezkoen
saskibaloiairen geroa**

Javi Zurbano hogeitabi urte ditu, eta bere bizitzan zehar ordu askotxo eman ditu saskibaloiairen munduaren inguruan. "Duela hamar urte ekin nion saskian jokatzeari. Dena den, laster ikusi nuen hori ez zela niretzat, eta begira, entrenatzaile lanetan amaitu dut".

Dagoeneko hiru urte igaro dira neska taldearekin hasi zenetik. "Eskolarteko ekipoak bultzatu genituen orduan. Hasieran neska mordoa hurbildu, baina hurrengo denboraldirako zerbait egiteko gogotan zeudenak gelditu ziren soilik. Arrasate Igeri taldean integratu ginen, eta azken bi urteetan Gipuzkoako gazte mailan aritu izan gara".

Gauzak horrela, bukatu berria dute aurtengo liga, eta balorazio baikorra egin behar. "Pazientzia handiaz egin dugu lan. Danboraldi hasieran, gainera, arazo ugari sortu zitzaizkigun, hamabi jokalaririk zazpi min hartu zituelarik. Justu-justu elkartzen ziren bost jokalaririk partiduetan. Baina harro sentitzen naiz egin duten lanaz; astean bost egun etorri dira entrenatzera, eta azkenean hamasei partidutik hamabi irabazi ditugu, mailaz igotzea lortu dugularik".

Dena den, Javi kezkatu azaltzen da emakumezkoen taldeek jasotzen duten tratuagatik. "Kantxa eskaxenak uzten dituzte beti guretzat, eta noski, ordu txarrenak. Ligako parti-



du guztiak, adibidez, igande goizeko hamarretan jokatu behar izan ditugu. Imajinatu, horrela ez dago modurik, ez da urte osoan ia ikusle bat bera ere etorri".

Halere, tipo optimista dugu Javi. "Nik uste etorkizun izela duela saskibaloiak, bai gizonezkoen eta bai emakumezkoen artean. Azken urteetan ikaragarritzko gorakada bizi izan du, eta halaxe egoten da kiroldegia edozein egunetan, jokatu nahi duten haurrez josita".

Hutsune asko daude, ordea, oraingorik konpondu beharrekoak. "Iturripeko kiroldegi berriarekin, badirudi kirol-instalazioen arazoa behintzat konpondu egingo dela, eta pozgarria da hori, denok izango dugu gure gunea. Bestalde, nere ustez beharrezko urratsak eman beharko lirateke, IVEFetik etorritako espezialistek kirol modalitate ezberdinen ardura har dezaten. Aurrerapausu ederra izango litzateke hori, haurrak txikitatik ganoraz zaintzeko".

■ **Arrasatear maratoilariak**

Hiru arrasatear izan genituen asteburuan Madrilen, Espainiako maratoi txapelketa korritzeko asmatan: Enrike Kabiketa, Pedro Zalama eta Cesar Diez hain zuzen ere.

Kabiketa 20. postuan heldu zen helmugara; baina aurretik sartutakoan artean zortzi atzerritarrek zirenez, 12. postua eskuratu zuen txapelketan, Arrasateko rekord berria ezarriz: 2 ordu, 25 minutu eta 48 segundu.

Pedro Zalama 68. postuan heldu zen helmugara, eta Cesar Diez, bestalde, 300. postuan sailkatu ere. Zorionak hiruroi!

■ **Besaidekoak Herri Urratsera**

Aipatu bezala, Besaide Mendizale Elkartekoak ez dira geldi geratzen diren horietakoak. Maiatzaren 12 eta 13rako ere irteera berria antolatu dute 'Herri Urratsera'.

12an aterako dira, mendi zeharbidea egiteko asmoaz; ibilbidea, honako hau: Amaiur, Gorramendi, Irubelakaskoa, Bidarraien amaituko delarik. Gero, 13an, denok 'Herri Urratsera'.

Izen emateak, Besaide Mendizale Elkartearen egoitzan bertan, maiatzaren 7, 8 eta 9an.

■ **Aukearen bilera**

Maiatzaren 14ean, arratsaldeko 7,30etan egingo da Aukeako abonatu batzarra, bertan Zuzendaritza-Batzorderako ordezkaria hautatuko delarik.

Bilera, Amaia antzokian.

Aipatu, bestalde, adin nagusikoa den edozein abonatu, titular edo onuradun izan daitekeela hautagai

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispera 2,
Erakusketa: Sancho Abarca 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



**E D E L
TAPIZTEGIA**

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA

Taldearen definizioa eta ezaugarriak (II)

Lehen bileretara hurbildu zirenak hastapenetan zeuden, inork ez zuen artean izen propio handirik. Alde horretatik, *Ez Dok Amairu* sekulako eskola izen zen, elkarlanean mamitu bait ziren gero bakarka musikari handi izango zirenak, beste batzuk bidean gelditu ziren bezala.

Kide bakoitzaren nortasuna gero eta bereziagoa izango zen arren, taldean oso koherentea izan zen, ezaugarri nabariak erakutsi zituelarik. Lehena, saltsa politikoko handiko sasoi hartan, jarrera euskalzale eta abertzalea. Abertzaletasun ez-kertiarraren sortzea eta finkatzea istilutsua suertatu zen, baina *Ez Dok Amairu*ren jarrera beti izan zen zorrotza eta militantea, orduan espagnolizatzen joak ziren kantariei elkarrekin kantatzeko betoa ezartzearaino.

Bigarren ezaugarria berrizaleatasuna

litzateke, planteamenduetan erakutsi zuten ausardia. Hasieran kitarrak kantatzea besterik gabe askoren eskandalurako izan bazen, gerora kantuen hitzetan isladatu ziren kezak, taldekideen jarraitza eta itxurak, edota emanaldietan erabili zituzten molde abangoardiakoak euskal gizartea modernoagoa izan zedin eragin zuten. Zentzu horretan, *Ez Dok Amairu* garaiko gazteriaren akuilua eta abangoardia izan zen urte batzutan.

Hirugarren puntu aipagarria, taldeak zituen osagai artistikoen aniztasuna da. Oteizaren fronte kulturalaren asmoa -non *Ez Dok Amairu* musikaren atala beteko zuen- ez zen gauzatu, baina abiapuntu horrek nolabaiteko kutsu interdisziplinarioa ezarri zion taldeari. Emanaldietan, kantatzeaz gain, poesia, txalaparta, dantza zaharrak eta antzerkiaren aztarnak nahasten zireneko osotasun estetiko

erakusten zuten.


Azkenik, seriotasuna. Ez hau hitzaren zentzu bietan. Alde batetik, taldeak bere lana oso serio planteatzen zuen, gauzak ondo egin nahi zituzten eta hori lortzeko profesionaltasuna aldarrikatu zuten.

Arazo hau oso istilutsua izan zen orduko euskaldungo boluntarista eta utopiazale hartan eta taldeak eraso gogorra jaso zuen horregatik. Baina aldi berean serio agertzen ziren bizitzaren aurrean. Edo triste, geroago Xabier Letek esango zuen bezala: "*Gure egoera eta gure herriarena iluna dek, gure kantak ere ilunak dituk, horiek ziren gure erreflexioak. Baina nik uste oso tipo tristeak ginela, aburrituak. (...) Baga Bigan hogei kanta kantatzen bagenituen, seguru hamasei tristeak zirela*".

(Jarraituko)

DENA KIROLA EGITEKO

*Kanping,
hondartza
eta aisialdiatarako
moda*



**LORAMENDI
KIROLAK**

Testuliburuak

Aurreko artikuluetan Hezkuntz sistemaren erreformak ekarriko dituen aldaketek ari izan gara. Aldaketa hauen artean azpimarratzekoa da ikastetxe bakoitzak eta irakasle bakoitzak edukiko duen askatasuna programa antolatzeko.

Askatasun honen oinarrian printzipio bat: ikastetxe, gela eta haurren artean dauden maila kognitibo, egoera eta interes desberdinetan oinarritu behar dela irakaskuntza.

Honekin batera ikastetxe-prozesuan, eduki kontzeptualen transmisioez gain, kontzeptuak bereganatzeko prozedurei eta ikasleen jarraitze garatzeari garrantzi handia ematen zaie.

Argi dago testu liburuek, orain arte planteatu diren moduan, ez dietela erantzuten gorago aipatu diren aldaketei.

Honen aurrean erreflexio bat planteatzen da:



Zeintzuk dira hezkuntz sistemaren aldaketen aurrean testuliburuak bete behar dituzten baldintzak? Jarraian testuliburuetan eman beharko diren derrigorrezko aldaketak azalduko ditugu:

- Testuliburuetan ezin dira kokatu hurrek, haur guztiek, burutu behar dituzten ekintza guztiak, testuliburuak lan egiteko aukera desberdinak eskaini behar dizkie irakasle eta ikasleei eta aukera hauek material osagarrien erabileran oinarritu behar dira.

- Eduki kontzeptualak transmititzen dituzten materialak izatetik, ikasleek jarrerak eta kontzeptuak bereganatzeko eragiketa kognitibo desberdinak eskatzen dituzten materialak izatera iritsi behar dute.

- Testuliburuak erantzun idatziak indartzen dituzte eta ahozko adierazpena murriztu; honen aurrean adierazpen mota desberdinak posibilitatzen dituzten materialen beharra ikusten da.

- Testuliburuak lan individuala bideratzen dute, honen ordez, talde-lana, haurren arteko interakzio edo elkarrekintza ahalbidetzen duten materialen beharra ikusten da.

Argitaletxeen interes komertzialak, hemen planteatzen diren zenbait aldaketaren oztopo bihur daitezke; irakasleen eskuetan geldituko da material egokien aukeraketa.

Klarion Taldea



GOLIARDOS

antzerki taldeak

“A puerta cerrada”

aukezten du

Maiatzak 5 larunbata
Gaueko 10,30etan
Amaia antzokian

Sarrera: 500 pta.
300 pta. (Gazte Txartelarekin)



Arrasateko Udala




Gipuzkoako Foru Aldundia

Tabakoa eta minbizia

Edari alkoholikoak hartzeko gazteek duten ohitura azertzen hasi baino lehen, tabakoak minbiziaren agertzearekin duen zerikusiaz xehetasun batzuk ematea beharrezkoa iruditzen zaigu.

Minbizia, gaixotasun kardiobaskularren ondoren, gure gizartearen dagoen hilkortasunaren bigarren zergatia dugu. Azkeneko bolada honetan kanpaina ugari egin dira tabakoaren aurka gure gaitz guztien errudun bakarra izango balitz bezala. Egia da, eta horretaz ez dago dudarik, tabako faktore erabakiorra dela minbizia agertzen den hainbat kasutan, baina atentzio guztia bere gain jartzea eta errudun bakarra bezala ager eraztea, jendeak beste hainbat faktore, erabakiorrak hauek ere, kontutan ez izatea ekar dezake ondorio bezala, eta ez dugu ahaztu behar beste faktore hauek tabakoak bezalako eragina



dutela gutxienez...

Funtsean gutxi hitzegiten da dietak duen eraginaz eta azkeneko estimazioek diotenez minbiziaren hildakoen proportzioa, dietaren arabera, %35era heltzen da, tabakoari dago-kiona berriz, %30a izango litzateke...

Hala eta guztiz ere, dietaz gutxi hitzegiten da eta desproporzio handia dago baliabide eta diru aldetik tabakoaren aurka egiten diren kanpai-

netan erabiltzen denaren eta elikadura hobetzeko eta egokia ez denean honek dituen arriskuak adierazteko erabiltzen diren errekurso urrien artean.

Grafikoan ikus dezakezue minbiziaren kasuak eta faktore desberdinek duten eragina. Hemen agertzen denez, tabakoak bigarren tokia du dietaren ondoren, hau bait dago lehen mailan.

Eukeni-Arantza

Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Musakolako jaietan mendiko bizikletan

Datorren maiatzaren 13an, Musakola Jaien programaren barruan txango polita eratu dute antolatzaileek. Zita garrantzitsua izango du mendi-bizikletan ibiltzen denak. Beraz, igande horretan nora joan badakigunez, ikus dezagun zein izango den zeharbide osoa.

Hasiera Arrasateko Kiroldegian (Musakolan) izango da. Bertatik igerilegu ostean dauden ortuak zeharkatu (Mojategi) eta erreka bazterretik Roneo-ko zubiraino. Hemenetik Aranguren baserri azpitik eta erreka ondotik, Etxezarreta ingurura eta hortik, bidea jarraituz San Prudentziora.

Ondoren San Prudentziotik, errepidea hartu eta zubia zeharkatu eta erreka eskumakaldetik pastelak egiten diren lantegira eta hemendik Zubillagara. Gero Txaxeta aldera hartu eta Urkuluraino segi.



Hasieran asfaltatua eta gero pista. Bailara polit hori ezagutzeko aukera izango dugu, bertako baserriak, Bedoña Auzoaren ikuspegi berria, etab.

Urkulutik Larriñora igo eta eliza ondoko iturrian atsedentxo egin, hamarretakoa egiteko. Gero Bedoñara eta hemendik Etxagibelen baserri-tik Kurtze-Txikiko basoetatik zehar Deba Garaiko Ospitalean irteteko.

Ondoren Kiroldegian dutxatzeko modua izango dugu.

Badakigu ez dela oso zeharbide luzea baina bai erraza eta Musakolako jaien nagiak astintzeko egokia izan daitekeena. Beraz, mutil eta neska, gazte eta hain gazte ez dena, denok gonbidatzen zaituztegu Musakolako jaietan antolatu den zeharbide honetara. Animo eta zatoz parte hartzera!

K. U.

MAHAINGURUA

“Euskal Musika Gaur”

Maitzaren 10ean, osteguna
Arratsaldeko 7etan, Monterronen.

PARTAIDEAK:

- Josu Zabala (Hertzainak)
- Edurne Ormazabal (“Euskadi Gaztea” irratiko zuzendaria)
- Joxe Mari Goikoetxea (ELKAR diskaetxekoa)
- “Matxitxa” (Produktorea)

Moderatzailea: Edorta ARANA

Antolatzailea: AED Elkartea



ARRASATEKO UDALA

Udal-Plenoak, 1990eko apirilaren 27an egindako ohizko bilkuran, hartutako akordioen laburpena.

- Kontxi Etxebarria Andereak Zinegotzi karguaren jabetza hartzen du.
- U.6.23, U.6.16 eta U.6.18 Unitateetan AA.SS en Elementuak aldatzeko B.E.P.B. (P.E.R.I.) behin-behingo onartzen da.
- (Polmetasa-Fagor Elektroteknika) A-8 Arearen Ekonomi Birzatiketako Dokumentuari hasierako onespena ematen zaio.
- (Mugarritte) S-10 Sektorea Birzatikatzeko Proiektuari hasierako onespena ematen zaio.
- S-6 Sektore, U.6.11 Unitatea eta S-16 Sektorearen AA.SS.en Elementuak Aldatzeko Testuari hasierako onespena ematen zaio.
- Hirigune Zaharreko (PER) E.P.B.ri hasierako onespena ematen zaio.
- (Gorostiza) S-8 Sektorean Plan Partzialaren Erreformari hasierako onespena ematen zaio.
- Eskritura Publikoaren bidez eginda. S.13.1 Sektorearen Kontentsazio-Batzordearen eraketa onartzen da.
- (A-21 eta A-22 Areak) S-3 Sektorean AA.SS.ak Birdefinitzeko Testuari hasierako onespena ematen zaio.
- Construcciones Irgala, S.A. enpresak formulaturik, U.6.17 Unitatean AA.SS.ak Aldatzeko proposamenari hasierako onespena ematen zaio.
- Construcciones Irgala, S.A. enpresak formulaturik, Ferixaleku inguruan Pilotalekua eraikitzeko U.6.17 Unitatean lurak erabili ahal izateko proposamenari onespena ematen zaio.
- (Mojategi) S-12 Sektorean lurak desjabetzeko espedienteari hasiera ematen zaio.
- Udal Kanposantu berrira heltzeko bidea egiteko lurak erosten dira.
- Iturripen Kiroldegia eta Pista Balioanitzak eraikitzeko obrak Construcciones Brues, S.L. enpresari adjudikatzen zaizkio, 248.504.984 pezetatan.
- Ferixalekuan Tecsa S.A. enpresari adjudikatzen zaizkio, 306.759.931 pezetatan.
- Ekipamendu Sozio-kulturalerako diren edifizioak urbanizatu eta berregokitzeko obrak burutzeko Hitzarmenak sinatzeko eskabideen aurkezpena onartzen duten Alkatetzaren erabakiak berretsi egiten dira.
- San Juan de Dios Anaiak formaulaturik, U.1.4. Unitatean AA.SS.en Elementuak Aldatzeko proposamenaren laburpena jendaurrean jartzea erabakitzen da.
- Euskal Autonomi Elkarteari Udalari Honetako I.Zuloaga Kaleko 2 zenbakian dagoen lokala, Epaitegiaren egoitzarako, Udalari laga diezaiola eskatzen zaio.
- Hutsik dagoen Idazkari lanpostua aldi baterako betetzeko bitarteko funtzionari bat hautatzeko deialdia agindu behar duten oinarri-arauak onartu egiten dira.
- Donostiako Arurrezki Kutxa Munizipalaren Kontseilu Nagusirako udal ordezkariak (Jose Luis Lana eta Aitor Orobengoa zinegotziak) izendatzen dira.

Arrasaten, 1990eko maiatzaren 2an
Alkatea

Aste gazte

Estatu espainoleko 77.165 goi mailako titulodun langabezian daude. Lan irteera gutxien duten karrera unibertsitarioak Medikuntza, Geografia eta Historia, eta Zuzenbide dira. Langabetu gutxieneko karrera Injinerutza Elektromagnetikoa da. INEMeko datuak.

Proporzionaliki, Euskadin gazte gutxiago ari dira lanean eta gehiago ikasten.

Bestalde, Konstituzioak lana izateko eskubidea azpimarratzen du.

Lan-ihardunaldiak

Estatu espainolean aurten antolatutako diren lan-ihardunaldiei buruzko informazioa Gazte Zerbitzuan dugu. Interesatu guztiok pasa zaitezketekete bulegotik.

Ikastaroak

• HHI-EPA: Maiatzak 14-25: a) 4etatik 5etara: mekanografia, argazkigintza ere literatur sormena. b) 7etatik 9etara: lehenengo laguntzak, kontsumo eta adierazpen plastikoa. Matrikulak maiatzaren 11erarte. Doan.



• Euskal Herriko Unibertsitateko Udako IX. Ikastaroak: matrikula epea: maiatzaren 7tik ekainaren 7ra.

Lehiaketak

• San Juan-90 Jaietako Kartel-Lehiaketa. Teknika librea. Saria: 50.000 pta. Lanak aurkezteko epea: 90-5-25;

• Komiki-lehiaketa. Euskaraz nahiz gaztelanaz. Zuri-beltzez nahiz koloretan. Gai librea. Saria: 40.000, 30.000 eta 15.000 pezetako bi akzesit. Lanak aurkezteko epea: maiatzaren 90-6-6.

• "Festivales de Navarra-90" Kartel-Lehiaketa. Teknika librea. Saria: 250.000 pta. Lanak aurkezteko epea: maiatzaren 15etik 20rarte.

• "La vida en el siglo XXI" Marrazki-Lehiaketa. 9 eta 18 urte bitarteko ikasleek har dezakete parte. Gaia: espazio-hegaldiak. Saria: Estatu Batuetara 3 asteko bidaia, 3 hegal-jantziak, etab. Lanak aurkezteko epea: 90-5-30.

• Euskadiko IV Zeramika Bienala. 3 modalitate: eskultura, murala eta keramika gauzakiak. Aldez aurreratik edozein erakusketatan parte hartu izan duten Euskadiko artistei zuzendua. Saria: 225.000 (eskultura eta murala) eta 125.000 (keramika). Lanak aurkezteko epea: ekainaren 18tik 20rarte.

• "Cinema Jove'90" Lehiaketa. 26 urtetik beherakoei zuzendua. Formatoak: VHS edo U-MATIC BB. Estatu espainoleko edozein hizkuntza ofizialetan. Lanen iraupena, gehienez: 30 minutu. Saria: 1.- 1.000.000, 2.- 350.000, eta 100.000 pezetako 3 akzesit. Lanak aurkezteko epea: 90-5-15.

Bekak

• Euskarazko Literatur Lanak sortarazteko bekak eta argitara arazteko laguntzak. Idazle profesional zein hasberrientzat. Diru-kopuruak: a) Bekak: profesionalak 650.000; hasberriak: 250.000. b) Lanak argitaratzeko laguntzak: 650.000 pta. Epea: 90-5-31.

Informazioa gehiago:
Gazte Zerbitzua
Tfnoa: 79 09 00

BERGARAKO UDALAK
EUSKO JAULARITZAREN LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAREKIN LANKIDETZAN

Astaldi eta errekurto dinamizatzaile ikastaroa

Ikastaroa • Ondo ezagutuko duten haur eta gazteen ingurua, denbora liberako teknikariak hezitzea.

Norentzat • Batxilergoa edo antzeko titulazioa duten 18 urtetik gorako langabetuentzat.

Non • Bergarako Errotalde Kultura-Etxean.

Izenamatea • Maiatzaren 9tik 23ra bitartean.

Iraupena • Hiru hilabete.

Lan eta Gizarte Segurantza sailaren dirulaguntzaz Izenamatea eta informazioa:
Bergarako Udaletxean, Enplegu Dinamizatzailea.
Deba Garaiko Udaletxetako Enplegu Dinamizatzaileak.

BERGARAKO UDALAK
EUSKO JAULARITZAREN LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAREKIN LANKIDETZAN

Gas instalatzaile ikastara

Ikastaroa • Gas Instalatzaile profesionak hezitzeko Soldadura eta Iturgintza arloko gaiak landuz.

Norentzat • Graduatu Eskolarra duten 18 urtetik gorako langabetuentzat.

Non • Bergarako Amillaga 47ko Industri Pabeloi batean.

Izenamatea • Maiatzaren 9tik 23ra bitartean.

Iraupena • Sei hilabete.

Lan eta Gizarte Segurantza sailaren dirulaguntzaz:
Izenamatea eta informazioa:
Bergarako Udaletxean, Enplegu Dinamizatzailea.
Deba Garaiko Udaletxeko Enplegu Dinamizatzaileak.

IBARRA Garajea S.A.

EBRO NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Erdiko kale. 79 19

LEA

Ferrerias. 79 87 62

ETXEBIZITZAK

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Asteguntan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bikoteak errentan hartzeko teilatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramalo kalea 4, etxabea etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo teilatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73
- Bikote batek teilatupea edo pisu txikiren bat hartuko luke. Hutsik balego hobeto. Tfnoa: 79 96 90.

LANA

- Emakume euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egingateko. Deitu tfno honetara: 76 22 68
- Emakume gazte eta arduraduna lanerako prest. Tfnoa: 79 77 36
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83
- Edozein lan egingo nuke. Tabernan, jattetxean, haurrak zaindu... Dei 79 15 35 telefonora.
- Pertsona euskalduna behar da ikastetxean eta etxez-ete bideoak saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora
- Kontabilitateko klase partikularrak emateko pertsona behar da. Dei 9etatik aurrera 79 99 82 tfnora. Miren.
- OHoko 7. mailako neskatilari klaseak emateko pertsona behar da. Egunean ordu betez. Tfnoa: 79 83 68. Kati.
- 26 urteko neska etxeko lanak egingo lituzke, orduka, bai goizez eta bai arratsaldez. Tfnoa: 77 04 97 Nati.
- Esperientzia duen neska etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 97 58
- 19 urteko neska euskalduna prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak dei tfno honetara: 79 54 79.
- Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 21 09. Gaez.
- Latin klaseak ematen ditut. Interesatuak 79 50 88 Tfnoa deitu. Garbiñe.

SALEROSKETAK

- Bi markako SONOR soporte platerak, Bateriazko aulkia eta paiste 3000 Rude markako platoa saltzen dut. Gutxi erabilita daude. Telefonoa: 79 91 59 Xabier (eguerdiko 1etatik 2etara)
- PC erostegatik Toshiba ITX-10 ordenadore salgai, 64 k. Baita ere Sanyo SLIM-3 magnetofonia, 2 Yoystich eta hainbat joku. Guztira: 20.000 pzta. Tfnoa: 78 15 86.
- Liburu bilduma salgai. 1952tik 1987ra bitarteko Planeta sariak eta 1969tik 1987ra bitarteko Ateneo sariak. Egoera onean. Tfnoa: 79 15 96
- Yamaha XJ 650, BI-AC kilometro gutxi eta merkea salgai. Tfnoa: 79 36 65 Miguel Angel.
- R-12 TS autoa salgai. Interesatuak 79 33 43 Tfnoa deitu, arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Maleta, motxila eta poltsak, era guztietakoak salgai. Oso prezio onean. Nahi izanez gero, Aramaion San Martin Ikastetxean izango dira. Tfnoa: 945-44 50 04
- Bizikleta la berria salgai. Reynolds 531 Mercier. Pieza gehienak Zeus. Talla: 58. 65.000 pta. Tfnoa: 76 32 69

DENETARIK

- Otsailaren 14an irristola galdu nuen Santa Barbara inguruan. "Punk Smile" idatzia du atzekaldean. Mesedez, ikusi baduzu dei 79 95 71 telefonora (Josu)

ARRASATEN HILDAKOAK

Felix Gaztelu Eguren.
Apirilaren 24ean. 55 urte

Francisco Uribebarria.
Apirilaren 24ean. 82 urte.

Maria Larrea Saez de Adana.
Apirilaren 28an. 65 urte

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka 1,
20.500 ARRASATE Tfnoa: 77 05 65

Famauen ahotik

Gregori Markaide eta Dominga Galdos: "Bazkai ona ipiñi gure bozu eguneko gauzie lakoik eztau"



Ezkerrekue Gregori Markaide eta eskumakue Dominga Galdos

Gazte-gaztetatik plazara

Gregori: Amak Olaandik plazara, buruen erueten auen otzarie kargau-kargau eimde eta nik handik hartu jenerue eta partiruten eitten nauen etxeik-etxe. Beratzi bat urte ero eukiko nittuen orduen. Gero Bedoñara ezkondu nitzenien be, haxe martxie hartu nauen eta halaxen jarraitetan dot hirurogei bat urte badaroiert hartan.

Dominga: Lehengo aitte-amak ibiltten zien, gero anaie, ahiztak hurrengo eta neu be gazteik hasi nitzen. Etxien betik ezautu dot nik plazarako martxie. Neu izen nitzen, plazara baserriko ogixe erueten hasi zan lehenengue, oiñ hogetazazpi urte, xei ogi eruen nittuen eta lehenengue Bazterretzekuek erosi euzten.

Orduen plazie Sebero Altuben

Seberon aterpeien eitten zan orduen plazie, gero ha kendu eñ biher auieia eta oiñ eitten dan lekure, hoge bat urte dala ero pasauko ginduen.

Oiñ gauzen lekuoi eztau txarto, baiñe haretxeik eskillarak, nausixendako eztauz bape egogi. Eskillaraik ez baleuko, asko be jente gehixau etorriko litzake.

Plazaik prinzipalena domeketan

Oiñ plazaik inportantiena eguakotxetan eitten dan letxe, lehen domeketan eitten zan. Domekie kendu auienien ez gauen pensetan ezer saldu bihe gauenik, ene akabo gurioi, pentsau gauen, baiñe jentie akostunbrau zan eta tira.

Orduen asko regateue, tratue, izeten zan, oiñ eztau halakoik. Batak-bestie preguntauaz prezuien idea bat hartzen da eta gero plaziek berak erakusten dau, ezin badozu saldu igual merketxua ipiñi biher eta halan.

Ortuko lanak, preparatibuek...

Gu urte guztien zihher faten gare astien bi bider, eguazten eta eguakotxetan eta hartarako ortuei jarreittu eñ bihe jako, lan gogorra da. Lanik gehixen gañera bedarrak kentzen egoten da, hareik sikutiaz be urten eitten daue ta.

Gero besperako preparatibue be gogorra izeten da, eh!. Ortuko jenerue garbittu, sortak eñ...busti-busti eimde igual eta konturetu bez. Eta gañetikue be preparau eñ biher, ogixek, arto-opillek, gaztaiek, karapaixuek, txarrikixe... bueno-bueno lanak akaberaik pez.

Hala be, ba, eruendako jenero dana saltzen bada, pozik etxera.

Plazie biher-biherrezkue

Plazie gauza politte da, plaziek falta eitten dau dudaik pez. Oiño koseñero famosuok, Arzak, Argiñano eta honik pe, esaten daue, plazan eitten dan konprie baiño hobiaurik eztauela. Izen be, bazkai ona ipiñi gure bozu eguneko gauzie lakoik eztau eh!.

Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai

Zelebrequerixak

Plazentziako tabema baten pasau zan. Gabian berandu baten bezero onenetarikua sartu zan sekulako mozkorrakin eta kofiak kopa bat eskatu eban. Tabernarixa negoziuai begiratzen zotsana zan eta kopa erdi bakarrik etara zotsan.

Baiña mozkorrak zentzuna zihhero galtzeke eukan eta konturatu zan tabernarixak lapurretan egin nahi zotsana, eta suak eta garrak hartuta gaizki esaka hasi jakon.

- Eztaok deretxorik! Hau eztok osua! Nik betia eskatu juat!

Tabernarixak aterik aña maratilla eukan eta hola kontestau zotsan bere okerra zuzendu nahiz.

- Barkatuidak, baiña bixon onerako egin juat.

■ ■ ■ ■ ■

Joxe Moko gauerdi aldera etxeratu zan astrapalia darixola, bestetan baino basoerdi bat gehixago jota.

- Gure andriak alfonbra barrixa erosi jok-esan eban etxian sartu orduko-; pantaillia be bai. Nundik norako diruekin jarabik gure andriak hainbeste dotoretasan? ixil-poltsaren bat bajaukak bazterren baten gordeta.

Kuartuan sartu zanian Joxe Mokok hartu eban disgustua: andria beste batekin ohian!

- Ze andra, gizona be barrixa topau don ala? Zeinekin habil txalxalioi halakuoi?

Ohekuak etara zittuen kurrixkak Joxe Mokon kerizia ikusi orduko. Baiña ez gaizki pentsau, irakurle. Pasau zana izan zan Joxe Moko okerreko etxian sartu zala, auzoko Kalistonian.

Juan Martin Elexpuru



OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: *Otalora 1ean*
Biltegi berria: *Meatz-Erreka*

ARRASATE



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE



Jaime Zubialdea, "Torres" 1934

J

aime Zubialdea, Bonifacio Zubialdea "Torres"en semea, izan zen

Mondragoek izan duen azken pregoi jotzaile. Bere aurretik aita ibili ohi zen pregoiak jotzen, oso gazte hasi bait zen lan horietan. Txitxarro freskoa etorri berri zela, edota alkatearen bandoak, mila gauza iragartzen zen pregoietan.

Pregoi jotzaile atabalak eta danborrarekin ikusten zuten bakoitzean emakumeak balkoietara edo kalera irten eta "Torres, zer jo biok gaur?" behin eta berriz galdetzen omen zuten. Halako batean Torres aita haserretu eta "Narrua jo biejonat" erantzun. Alperrik haserretzea, ordea, ze hurrengoan galdera bera irri eta barre artean.

Normalean eguerdiko 12.00etan jotzen zen pregoia, ostiraletakoa herriko plazan. Dena den hemeretzi lekutan jotzen zen: Monte tabemaren aurrean, Maalan, plazako aurkupeetan....

Denboraz, pregoiek tokia egin zieten komunikabide berriei eta publizitateari.

1934eko argazki honetan Jaime Zubialdea gazte irrifartsua pregoia jotzera prestatzen. Bere eskuineko sorbalda gainean Bonifacio aitaren burua ikus daiteke, udaltzainkapela jantzita.



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

Hitz-gezidunak

Itas molusko	Toka, Zerion	Barazki mota	Aldrebesa	Bokal
Baleak harrapatzen ditu	Zatikatu	Galdegaia	Sorgin	errepikatua
Bizk. Naramazue				
Kontu			Eta	Jakiak
			Kristauen biltokia	
Zoro		Bizk. Omen		Kontsonante
Estomaka		Erreka handia		Zerbitzaria
			Balioa	
			Musika nota	
Ari nintzen Leku hartan				
		Larrua		
		Areagotzeko		
Errenka	Moilea		Ez eme	
	Legez		Aurpegiko irekidura	
			Ihardun	
			Alkoholen bukaera	
Bizk. Ote		Izana		
Ikara		Oxigenoa		
		Aie landareak		

Soluzioa

K	V	O	L	O	L	U	Z	I
V	I	H	O	E	L	E	L	I
I	R	V	A	R	V	L	A	R
R	V	A	V	A	K	A	V	A
V	A	V	Z	V	A	N	V	H
N	L	E	N	B	I	N	E	N
V	A	G	A	L	I	L	D	A
J	L	V	E	I	R	O	E	R
V	L	V	N	I	N	I	P	U
E	V	A	R	O	A	V	Z	U
E	V	A	L	E	N	Z	A	L
V	V	A	Z	L	A	V	A	V

ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin



ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzesiño kalea 4, behea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Akautu gabeko Brandy botila

Gizonak Brandy kopa batzu edan ditu logelako atea ireki aurretik.

Barruan, noski, emakumea.

Eta gizonak ahots melosoz galdetu:

— Gel naiteke lo egitera?

Aspaldi ezagutu zuten elkar gizonak eta emakumeak. Joanak dira eskutartean makina bat gau eta egun; oroitzapenean itsatsita gelditzen diren une, ordu horiek...

Eta gizonak beti jakin izan du, jakin ere, emakumeak melodia berezia jaio, esnatu erazten diola bihotzean.

Horregatik zabaldu du Brandy botila gaur gauean; jadanik erdi hutsa dagoen Brandy botila.

Horregatik zuzendu ditu bere urratsak logelarantz.

— Ez, Sergei; hobe duzu ez gelditzea.

Ia. Irriparre tristea marraztu du gizonak ezpainekin.

Logelako atea itxi du. Sukaldera abiatu.

Eta han, sukaldeko mahaian, akautu gabe utzi duen Brandy botila oraindik ere bere zain.

Erramun

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



TITARE

LENTZERIA FINA

**Olarte kalca 8,
ARRASATE**

■ **ETBn zaharra dena besteetan interesgarria?** Aspaldi honetan gauza bitxi batekin konturatu naiz, lagunartean eta. Euskal Telebistan Ben Hur, Hitchcock-en filmeren bat edo ez dakit noizko mundialetako Ingalaterra-Alemania finala ematen dutenean, "jope, ETBn programa zaharrak baino ez dituzte ematen!" esaten dute, eta horrekin saio horiek ez ikustea justifikatzen. Filme edo erreportaia berak TVEren edozein kateatan ematen dituztenean, ostera, komentariok bestelakoak dira, "ondo dago bitxi zahar on hauek noizbehinka ematea", eta ikusi ere, ikusten dituzte.

Zer gertatzen da hemen? Produktu beraren aurrean zergatik erantzun desberdinak? Akaso produktua bera azken finean bera ez delako? Goazen astiro. Zenbait jenderentzat aitzakia hutsa da ETBren aurrean duten jarrera. Azken batean ez dira eroso sentitzen euskaraz entzuten eta nahia-gu dute gaztelerez ikusi. Bigarrenik, baliteke filme edo erreportaia horietan erabiltzen den hizkuntza, euskara, guztiz normalizatua ez egotea eta entzunikusleari arraroa egitea eta futbol partiduez ari bagara, berdin ez izatea Jose Angel Iribarren komentarioak euskaraz egiten edukitzea edota Azkargorta erdaraz. Are gehiago esango nuke: duda barik, ez da berdina Azkargortari TVEn erdaraz entzutea edo ETBn euskaraz; nire ustez gaztelaniaz askoz ere zehatzagoa da eta aberatsagoa, egiten dituen iradokizunetan. Azkenik, eskaintza beraren aurrean (Hitchcocken filme bat adibidez), egunkariak eta, modu desberdinean informatzen dute. Erdal egunkariak askoz ere bonbo eta oihartzun handiagoa ematen diete erdal kateen produktuei.

Gauza bat argi dago beraz. Ezin dela besterik barik ETBk produktu zaharkituak ematen dituela esan, besteei, gauza bera egiten dutelarik, hori egozten ez zaien bitartean.

Arazoak beste nonbaiten daude.

■ **Retegi-Tolosa.** Goi mailakoa izan genuen eskuz banakako finalaren erretransmisioa. Kamarak oso ondo eta baita esatariak ere, Fermin Aramendi eta Xabier Euskitze. Azken hau ona bazen, egunetik egunera hobeto aurkitzen dugu. ETBren kamara eta esatariei ez zitzaizen detailerik galdu: Tolosaren ezintasuna, Retegiren lehia-beharrezkoa txapeldun batengan-eta letxe txarra -birritan modu txarrean jaurti pilota Tolosari sakea egin zezan eta podiunean zeudela begiratu ere ez Amezketakoari-soberan pilotaren historian bere lekua irabazi duen garailearengan.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Fusil zaharra:** Ostiralean, 21.35etan. André Cayettek zuzendutako filmea. Antzezleak: P. Noiret eta Romy Schneider. Alemaniar tropak herri lasai batean sartzen dira, eta ondorioz, herriko sendagileak bere emazte eta alaba gaztelu batera bialtzen ditu. Gerra amaitzean euren bila joan, baina emaztea eta alaba bortxatuak eta erahilak izan direla jakingo du.


■ **Il grande duelo:** Igandean, 15.25etan.

Clayton, Jeffersoneko sheriff-ohiak, bere laguntza emango dio Philippe gazteari hiltzaile baten-gandik ihes egin dezan. Philippe, ordea, ez da Claytonez fidatuko eta alde egingo du bere albotik...

Antzezleak: Lee Van Cleef, Peter O'Brien eta Anthony Vernon.

■ **Graham Parker:** aspalditxo honetan, ETBren eskutik makina bat musika saio ikusteko aukera daukagu, igande gaueko 23.30etarako programatzen dituzten kontzertuetan. Igande honetan, Graham Parkerren txanda. Ingeles honen zaletuek, beraz, aukera polita izango dute 'New wave'aren inguruan mugitu izan den musikari honen azken lanak ezagutzeko.

bideoak



Jainko Heziak

Mediterranioko aintzinako basoetako animaliarik indartsuena zezena zen. Horrexegatik, lehenengo abeltzainek zezena adoratzen zuten. Egyptianek jainkotzat hartu zituzten zezena eta beste animalia batzuk, hala nola katua, kokodriloa, eta ibis sakratua.

Hala ere, gizakiak animalia horiek hezi eta lanean jarri zituen.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



Gure erredakzioan ere badabiltza iratxo bihurriak, antza, eta horietako batek okerreko argazkia sartu zigun orrialde honetan. Guk Ixabel Iturberen berri eman eta argazkian, oster, Obduli. Ansoategi agertu. Barka diezagutela batak zein bestea. Hemen duzue **Ixabel Iturbe**, orain bai, J.R. Elortza eta Juan Luis Castilloren artean.

Ezin biziagoa izan genuen Arrasate Musikali eskainitako mahaingurua. Bero hitz egin zuten **Xabier Bengoa, Juanito Artzamendi** eta **Juan Luis Castillo** gonbidatuek. Zifra hotzak eta bihotzak ez ziren bat etorri. Bateren bat Arrasate Musikal inork esku artean eduki nahi ez duen patata beroa dela esatera heldu da.



Zur eta lur utzi gintuzten **Goikobalu** abesbatzakoek Amaia antzokian Deba Bailarako Abesbatzen arteko Topaketari amaiera emateko abestu ziguten "*Italiar Nahaspila*" rekin. Hura kantu eta interpretaziorako dohaina! Zein abesti polita eta zein ederki abestia! ATBren kamarek harrapatu zuten momentua eta asteazkenean eskaini.

asteko

PROGRAMAZIOA

7 ASTELEHENA

20.00 **Berriak** Aurkezlea, Koldo Rodriguez
20.20 **Mondrasport**, Jon Anduezak aurkeztua
20.55 **Medikua etxean** Bitor Irigoien eta Arantxa Lizasok aurkeztua. Gaia: Arterioesklerosia.

8 ASTEARTEA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Mondrasport** (Bezperakoa)
12.55 **Medikua etxean** (bezperakoa)

9 ASTEAZKENA

20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztua
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** mahaingurua. Moderatzailea: Jose Mari Velez de Mendizabal. Gaia: zinearen bilakaera geure artean.

10 OSTEGUNA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)

11 OSTIRALA

20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztua
20.20 **Erretratoa** Aurkezlea J.R. Elorza. Gonbidatua: Felix Aranzabal, Angiozarko itsua.
20.50 **Musikantoi Mikel**, Pepe, Asier eta Patxk aurkeztua.

12 LARUNBATA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)



ENARA
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21,
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



SOKOA

Zeharkale estalla Arrasate



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Ikasle ona zara eta ondo aztertu ondoren lanak primeran burutzen dituzu, baina ikastaldi iraunkoragoaren ondoren izango duzu hainbeste espero duzun somnenerako trebetasun hori.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Edozein solasalditan zeure eritzia azaltzeko prest izaten zara beti besteek inoiz pentsatu ere ez lituzketen ondorioak ateratzeko gauza zarelako; honek bame-gogoa asetzen dizu.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Nahigabetuta ekingo diozu asteari baina baikortasuna ere hor izango da behar denean. Lagunaren zergatiak ulertzen saiatu beharko zenuke, lehenengo krisialdia bada betiere.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Parrandarako gogo bizia daukazu, bizi bizi eta segurantzaz sentitzen bait zara, baina kontuz! besteek ez beharrei ez egin jaramon gehiegirik.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Arduratsu egotea ondo etorriko zaizu eginbe-harrerako. Objektiboki jokatu beharko duzu lagunarekin heldu gabeko bikotetan ematen den norberekeriatan ibiliko zara bestela eta.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Hilaren 6rarte Venusen posizioak ez dio mesederik egingo maitasunari, koplakari, muxin eta traidore azalduko da. Egonarri pixka bat edukizu; etorriko dira berri hobekak.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Azaleko gaixotasunen bat ager daiteke horretarako joera daukazuenotan. Elkarrizketarako zein adiskidetasunerako prest zaude eta honek lagunarekiko harremana sendotuko du.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Besteak ez bezalakoa izaten saiatzen zara berrondate handiz, baina zuzentasuna zuregana baino besteengana bideratzen duzu; ez pentsa ezarriko diezun erritmoa eramateko gauza izango direnik.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Nekatuta zabilta eta ez duzu atsedenerako tarterik bilatzen; lasaitu zaitez benetako beharra daukazu eta! Laguna axerikeriatan dabilkizula uste duzu baina umekeriatan baino ez dabil.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Guztiz nahastuta zaude, takian potian aldatzen bait duzu izaeraz; hanka sartze ugari izan dituzula konturatu zara behintzat. Zeure gustoko gizalgea sortzen saiatu zaitez.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Zorioneko izango zara arazo material zein emozionalean. Erakargarri egongo zara gainera, baina izakera zakar horrekin lagunak deskontsolatzea baino ez duzu lotuko.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Jan egoera bere horretan jarraituko du hurrengo astean. Ez zaitez sentitu lanpetuta, emaitza zentzua egiten duzun guztiari.

EUSKAL FAMILIETAN

IKASI !!

Euskara ikasten ari zaretenontzako egonaldiak euskal familietan.

Informazioa eskuratu nahi baduzu jo Udaletxeko Euskara Zerbitzura.
Tfnoa: 79 09 00



Seguruetan aintzindari.

Egunetik egunera guztion beharrei egokitzen ahalegintzen garelako pertsona, familia, industria bakoitzaren neurria egunerakotutako poliza gama, errazak eta ekonomia guztietara moldatzen direnak ditugulako.

Poliza aintzindariak.

 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK






Monterron Parkea

Musakolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek egina

Opel Kadett



ONA BAINO
HOBEA

Autogintza esperientzia handia duena bakarrik has daiteke 1988an gehien saldu zen autoa hobetu nahian. Horixe egin du OPELek, eta hona emaitza: OPEL KADETT berria.

Zatoz ikustera Opel kontzesionari Ofizialetara.

Zain daukazu.

BERRIA

Zain gauzkazu



TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEN: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria

Kontzesionari ofizialak

OPEL 
Hobeak esperietziagatik

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Iparagirre. Tfnoa: 72 33 71